

Tolosaldea garatzen

ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIN BEHINEKO ZERRENDAREN IRAGARKIA

Hautaketa prozesuaren eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda ebazteko bilera ospatu da Tolosaldea Garatzen, S.A.n, kontabilitate-teknikari plaza bat lan kontratudun langile finko batekin hornitzeko hautaketa prozesua burutzeko prozesuaren barruan.

Hautaketa Batzordeko kideak:

- Leire Otaegi Larrarte (Lehendakaria)
- Lierni Olano Goikoetxea (Idazkaria)
- Jon Zubeldia Zurutuza
- Garbiñe Mendizabal Ormazabal
- Aimar Arzelus Telleria

Tolosako Apattaerreak industriguneko Lehiberri Zentroan elkartu dira 2024ko azaroaren 21ean goizeko 10:30tan eta honako aktan jasotzen dira bertan jasotakoen edukiak.

Tolosaldea Garatzen, S.A.ko Administrazio Kontseiluak 2024ko irailaren 16an egindako bileran hartutako erabakiaren bidez, lanpostu bat lan kontratudun langile finko bihurtzeko hautaketa-prozesuaren deialdiaren oinarriak argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (195. Zenbakia, urriaren 9koa) Tolosaldea Garatzen, S.A.ko honako plazarako:

- Kontabilitate teknikaria lanaldi osoan.

Hautaketa prozesu horietan parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onetsi da. Zerrenda hori osatzeko hautagaiek aurkeztutako dokumentazioa aztertu da eta oinarrietan adierazitako baldintzak betetzen direla egiaztatu da.

Betekizunak betetzen direla adierazi dute hautagai guztiek.

Gidabaimena aurkeztea falta zaie Iraitz Beobide, Ane Gibelalde eta Nerea Goyari, baina hirurek adierazi dute haren jabe direla. Aurrerago eskatuko zaie jatorrizko egiaztagiria.

Merezimenduen fasera begira ere, adierazitako esperientzia profesionala eta prestakuntza osagarriari dagokionez, zenbait hutsune topatu dira.

	IRAITZ BEOBIDE	ANE GIBELALDE	NEREA GOYA	ELI MACHADO
Merezimenduen faserako aurkeztea falta den dokumentuen errekerimendua				
	Enpresaren ziurtagiria		Enpresaren ziurtagiria	Masterraren titulua
			Ikastaroaren titulua	


Hori dela eta, Hautaketa Batzordeak

EBATZI DU

Lehen. Ondoren aipatzen diren plazak betetzeko onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartzea (I eranskina):

- Kontabilitate teknikaria lanaldi osoan.

Behin-behineko zerrenda horren aurka interesdunek erreklamazioak jarri ahal izango dituzte edo zerrendatik kanpo uzteko arrazoi izan diren akatsak edo omisioak zuzendu ahal izango dituzte hiru egun balioduneko epean, sozietatearen web korporatiboan ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontaktzen hasita.



Tolosaldea garatzen

Erreklamazioak eta zuzenketak aurrez aurre aurkeztu beharko dira Tolosaldea Garatzen, S.A.ko bulegoetan (Lehiberri Zentroa, Apattaerreka Industrigunea, 20400 Tolosa).

Erreklamaziorik egiten ez bada, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda behin betikotzat joko da automatikoki. Halakorik badago, Hautaketa Batzordeak onartu edo baztertuko ditu arrazoiak emanez, eta berriro argitaratuko dira.

Bigarrena. Iraitz Beobide eta Nerea Goyari merezimendu fasean adierazi duten esperientzia profesionalaren egiaztagiriak osatzeko enpresa ziurtagiriak aurkezteko errekeritzea, hiru egun balioduneko epean, onartuen eta baztertuen behin behineko zerrenda web orrian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.


Hirugarrena. Nerea Goya eta Eli Machadori merezimendu fasean adierazi duten formakuntza gehigarriaren egiaztagiriak osatzeko tituluen kopiak aurkezteko errekeritzea, hiru egun balioduneko epean, onartuen eta baztertuen behin behineko zerrenda web orrian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Laugarrena. Onartutako izangaiak oinarrietako 6 puntuko 1) atalean aurre ikusitako proba teoriko-praktikoa burutzera deitzea:

- Lekua: Lehiberri Zentroa (Apattaerreka industrigunea, 20400 Tolosa)
- Eguna: 2024ko abenduaren 20an
- Ordua: 10:00
- Aurreikusitako iraupena: 3 ordu.

Tolosa, 2024ko azaroaren 27a.

Hautaketa Batzordea



Tolosaldea

garatzen

1 ERANSKINA / ANEXO 1

ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIN BEHINEKO ZERRENDA / LISTADO PROVISIONAL DE ADMITIDOS Y EXCLUIDOS

Kontabilitate-Teknikaria / Técnico/a de contabilidad

- Onartuen zerrenda / Lista de admitidos:

NAN / DNI	Izena eta abizena / Nombre y apellidos
331	BEOBIDE GURIDI, Iraitz
489	GIBELALDE ERASO, Ane
612	GOYA OIARBIDE, Nerea
946	MACHADO IPARRAGUIRRE, Elisabeth

- Baztertuen zerrenda /Listado de excluidos:

NAN / DNI	Izena eta abizena / Nombre y apellidos
-	-

Oharrak:

Onarpenen zerrendan agertzeak ez du esan nahi interesdunei aitortzen zaienik hautaketa-prozesuan eskatutako baldintzak betetzen dituztela.

Notas:

El hecho de figurar en la relación de admisiones no prejuzga que se reconozca a las personas interesadas la posesión de los requisitos exigidos en el proceso selectivo.